

ELA eta CIGen adierazpena

ELAk eta CIGek ez dugu onartzen espainiar Estatuan erabaki den erreforma laborala, batetik zein eratan egin den ikusirik, eta bestetik, eduki erabat atzerakoia dituelako.

- **ELKARRIZKETA SOZIALAREN KRISI ESTRUKTURALA:** Erreformari heltzeko izan den "elkarriketa sozial" prozesuak aldeztu aurretik ezarritako helburu bat zeukan: eskubide laboralak murriztea. Hau argi utzi zuten gobernuaren agiri publikoek (lehena, otsailaren 5koa). Zapaterok esan zuenean "murrizketak kosta ahala kosta" egingo zituela, eta "erreforma laborean funtsezko kontuak ukituko zirela", argi zegoen patronala izango zela onuradun nagusia. Errealitate honetatik abiatuta, taxutu duten *elkarriketa sozial* ereduak gizartea kontrolatzeko eta desmobilizatzeko tresna nabarmena izan da. *Elkarriketa sozial* horretan gezurrezko irudi bat plazaratu nahi dute, erantzukizuna alde guztia dela alegia, baina benetan krisiaren ondorioak nola kudeatu gobernuak, patronalak eta finantza-botereak erabakitzen dute.
- **ESKUBIDE LABOREN KONTRAKO AUZI SUMARISIMOA:** Beste behin, Espainiako gobernuak erabaki du erreforma laboral bat Errege Lege-Dekretu (ELD) bidez inposatuko duela; prozedura hau berez muturreko edo larrialdi egoeretarako da. Horrela saihestu egin nahi dute eztabaida, parte hartze eta aurkaketa soziala. *Elkarriketa sozialeko* mahaia bertan behera utzita, gobernuak indarrak erreakzionarioenekin bilatu du akordioa; hasierako testua zeharo okertu du, eta ELD hau legegai gisa tramitatzea posible egin duten indar politikoei ziurtatu die tramite horretan eskubideak are gehiago murriztu daitezkeela. Parlamentuan, alderdi politiko horiek lagunduta, elkartrukean dabilta, azoka pertsiar batean bezala, helburu bakarrarekin: eskubide laborei segada gogor bat egitea. Eztabaida uda betean ixteak (eraso hori egiteko uztaila eta abuztua gaituz) adierazten du nola ibiltzen diren jendearen eskubideekin jolasean.
- **OKERTZEKO ARRISKU NABARMENA.** Gobernuak erreforma aurrera ateratzeko izan dituen babesen arabera, ziurrenik are gehiago okertuko da.
- **EDUKI KALTEGARRI NAGUSIAK:**
 - **Eduki konkretuak**
 - Onartutako neurriekin kontratu mugagabea duen langile ororen kaleratzea erraztu eta merkatuko da. Gainera, kaleratze hauetako batzuk diruz lagunduko dituzte. Enpresa askok eta askok erabaki dute erreforma aplikatzea langileak kaleratzeko, bai banaka, bai kolektiboki.
 - Erreformak negoziazio kolektiboaren mamia jaten du, erraztu egiten baitie enpresei hitzarmen kolektiboa aplikatzeko

betebeharra saihesteko aukera, batik bat soldatei dagokienez. Gainera, bidea urratzen da enpresaburuek, ordezkari sindikalekin ados jartzeke, lan-baldintzetan funtsezko aldaketak egiteko modu errazagoa izan dezaten.

- Erreformak ateak irekitzen dizkie enplegu-bitartekaritzan negozioa egin nahi duten enpresei. Horretarako enplegu-agentzia pribatuak legeztatzen dira eta aldi baterako lan enpresek (ABLE) zituzten muga ia guztiak kentzen dira; honek laneko istripuak izateko arriskua handitzen du. Honi buruz gogoratu beharra dago ABLEen azken hitzarmenean akordio bat jaso zutela: agintariei eskatzea ABLEek galarazita zituzten esparruetan (herri-administrazioa eta eraikuntza) sartzeko oztopoak ezabatzeke. Hitzarmen hura CCOOek eta UGTk sinatu zuten.
- CIGek eta ELAk nabarmendu nahi dugu erreforma laborala negoziatzeko prozesuan –ezkutuan egin dena– konpromiso bat utzi dutela agerian patronalak, CCOOek eta UGTk, negoziazio kolektiboaren egitura berri bat hitzartze aldera. Negoziazio kolektiboa zentralizatzeko horrelako saiorik lehenago ere izan da, sektoreko lurralde-hitzarmenak deuseztatu edo erabat murrizteko. Bi sindikatuontzat oso larria litzateke Galiza edo Hego Euskal Herriko langileei zer eta non negoziatu nahi duten erabakitzeke aukera ukatzea edo mugatzea. Horrek, gainera, langile gehienei negoziazio kolektiboa urrundu eta parte hartzeko modua eragotzi egingo lieke, enpresa txikietakoak izanik, eta horrek, denbora joan ahala, beren baldintza laboraletan atzerakada ekarriko luke.

○ **Diagnostiko faltsutua**

- **Iruzurrean egindako kontratuentzako saria.** Aurreko erreformetan bezala, iruzurrean egindako aldi baterako kontratuak osteria ere aitzakiatzat hartu dituzte lan-harremanaren babes ezaugarriak eraisteko; agintaritzak laboralak jazartzeko izan duten borondate ezak posible egin du iruzur orokor hori.
- **Gezurra behin eta berriz.** Erreforma justifikatzeko hainbat gezur erabili dute. Lehena: enplegua sortuko omen da. Ez da egia; erreformak ez du lanpostu bat ere ekarriko. Aitzitik, hartaz baliatuko dira krisi garaian enplegu gehiago suntzitzeko. Bigarren gezurra: kaleratzea zaila eta garestia omen da. Zinez, kaleratzea libre da, eta nonbait ez oso garestia, Europar beste inon baino askoz lanpostu gehiago galdu baitira, oso erraz. Gezur hauek, besteak beste, 'aditu' omen diren horiek hedatu dituzte; kolektibo honetan oso jende jakina biltzen da, eta ezin du ezkutatu enpresa- eta finantza-munduarekin duen lotura estua.
- **Murrizketen benetako helburua** enpresen emaitza-kontuak hobetzea da, enpresarioari askoz botere handiagoa emanez. Ezin da onartu "eredu produktiboaren aldaketa" aipatzea, era berean erreformaren xedea prekaritatea areagotzea delarik.

- **ESTATU MAILAKO OINARRI-LEGEA.** Gure herrietan espainiar Estatuan erabakitako lan-legeria aplikatzen da; horren ondorioz etengabeko erreforma eredu bat ezarri digute, eta aipatu denez, eskubide murrizketekin batera negozio kolektiboan ditugun aukerak mozteko arriskua dago. Eredu hau langile-klasearentzat guztiz kaltegarria da.

Horregatik guztiagatik, ELAk eta CIGek hau adierazten dugu:

- Dei egiten diegu parlamentu-taldeei oraintxe tramitatzen ari den erreforma laboralaren aurka bozka dezaten, langile-klasearen eskubideentzako atzerakada handia baitakar berarekin.
- Krisi ekonomiko honetara ez gaituzte lan-merkatu zurrinak, ez soldatek edo kaleratzearen kostuak, ezta negozio kolektiboaren egiturak edo gizarte-gastuak ekarri; horrenbestez, gezurrezkoa eta hipokrita da esatea krisi horrentzako konponbidea eskubideak eta gizarte-gastua murrizteko erabakiak izango direla.
- Krisiaren zergatia beste bat da. Batetik, alegiazko ekonomia bat sustatu dute, espekulatiboa, ekonomia produktiboaren bizkar bizi dena, eta bestetik azken urteotan politika neoliberalak ezarri dira: errenta handien eta kapitalaren gaineko zerga-presioa gutxitzea; sektore publiko guztia (industria eta finantzetakoa) pribatizatzea; lan-merkatua prekarizatzea eta soldaten erosteko ahalmena murriztea. Hortaz, krisiari gizarteko gehiengoaren interesen arabera irtenbide bat eman nahi bazaio, bestelako politikak beharrezkoak dira: zerga-erreforma sakona; iruzur eta paradisu fiskalak desagerraraztea; gizarte-gastua gehitzea; soldatak hobetzea; banketxe publiko bat sortzea; ekonomia produktiboa laguntzea, eta eredu produktiboa aldatzea.
- Legeak egiteko ahalmen osoa eskatzen dugu gure lurralde-esparruan eskubide laboral eta sozialak erabaki ahal izateko. Gure herrietan hartzen diren erabakiak errespeta daitezela exigitzen dugu.
- Berretsi egiten dugu kontrabotere izan nahi duen eredu sindikal batekiko konpromisoa; honek politika publikoak eta enpresarioen jokabidea erabat aldatzea eskatzen du. Ezinbestekoa da eredu errebindikatiboari eustea, aberastasuna justuago banatzeko helburua izango duena; hau lortzeko bide bakarra gizartean kezka hau hedatzea da, lan-esparru desberdinetan alternatibak plazaratzea eta langile-klasea mobilizatzea.

Madril, 2010eko uztailaren 21a